# AZERIA, OILOAK ETA XITOAK

| **ZIKLOA: 1** | **ARLOA: 4** |
|---|---|

## KONPETENTZIAK:

| | |
|---|---|
| **Diziplinakoak:**<br>Besteekin joko batean parte hartu . | **Mintzairakoak:**<br>Argudiatu, Deskribitu, Bilduma egin |
| **Zeharkakoak:**<br>Bestearen ezagutzea eta errespetatzea | **Hizkuntzakoak:** "Zer gertatu da?"<br>Ergatiboa: "*Azeriak 2 oilo harrapatu ditu".*<br>Ezezko formak: "*Ez du oiloa harrapatu".* |
| **Haurren jakintzak:**<br>Hatsa hartu<br>Energia egok,itu,<br>Estrategi hautatu. | **Haurren aktibitatea:**<br>Laster egin,<br>Eskapatu,<br>Harrapatu,<br>Estrategi hautatu,<br>Seinale bati erantzun eman,<br>Hunkitu. |
| **Materiala:**<br>Bizkarrekoak,<br>Xingolak<br>Xirula,<br>Leku zabal bat | |

## URRASPIDEA

**Erreferentziazko egoera :**
2 talde kopuru berdinekin ( oiloak eta xitoak)
Azeri bat

| Oiloak | Azeria | Xitoak |
|---|---|---|
| O<br>O O<br>O<br>O O O<br>OO | A | X X X<br>X X X<br>X X X |

**Xedea :**
Oilo bakoitzak bere xitoa bereganatu behar du (bakoitzak bat) edo xito bakoitzak bere ama. Azeriak harrapatu behar ditu.

**Ekintza kriterioak :**
Oiloek eta xitoek eremu batetik bestera pasatu behar dute azriak harrapatu gabe.
Azeria bere eremuan egoiten da.

**Kausitze kriterioak :**
Azeriak oilo edo xito guziak harrapatu behar ditu.
Oiloek eta xitoek beren parezkoa bereganatu behar dute.

**Aldaerak:**
2 azeri eman. Eremuak zabaldu edo hertsitu.
Azeriak edo oilo batek edo xito batek du abiatzeko seinalea emaiten.

## ONDOKO EKITALDIAK:

Haurren zailtasunen araberakoak: seinalea, bestea hunkitzea, etab,...
- Seinale bati erantzun eman,
- Bere parekoa kausitu,
- Bestea hunkitu ( bestaren gorputzaren beldurra eztitzeko: aurkako jarduerak.

Egilea:
Ttitto Ayçaguer, Kirolarako Aholkularia
Orrialde orraztatzailea:
Yves Haran, Euskararako Pedagogia Aholkularia

# MAITE OTE DUZU ZURE AUZOKOA ?

| **ZIKLOA: 1 ETA 2** | **ARLOA: 4** |
|---|---|

## KONPETENTZIAK:

| | |
|---|---|
| **Diziplinakoak:**<br>Besteekin joko batean parte hartu.<br>Arau xinple bat segitu. | **Mintzairakoak:**<br>Jokoan parte hartzeko hitz egitera menturatu. |
| **Zeharkakoak:**<br>Oharmena erne atxiki. | **Hizkuntzakoak:**<br>*"Hau maite dut / ditut".*<br>*"Hau ez dut maite".*<br>Baiezko eta ezezko formak.<br>Plurala / Singulara. |
| **Haurren jakintzak:**<br>Estrategia asmatzea,<br>Abiadura,<br>Erne egotea,<br>Entzumena ( ohartzeko ),<br>Aginduen ulertzea. | **Haurren aktibitatea:**<br>Oharmena,<br>Laster egitea,<br>Estrategia hautatu, |
| **Materiala:**<br>Materialarik ez<br>Eremu zabal bat. | |

## URRASPIDEA:

**Erreferentziazko egoera :**
Jokalariak ingurutxoan. Joko eramaile bat erdian.
Joko eramaileak jokolari bati galdegiten dio*: "Zure auzokoak maite dituzu?"*
Berak: "*Ez, nik Peio eta Marina maite ditut !*".

**Xedea :**
Lau jokolariek (Peiok, Marinak eta maitatuak ez diren bi auzokoaek) lekuz aldatu behar dute;

**Ekintza kriterioak :**
Peiok eta Marinak lekuak trukatu behar behar dituzte maitatuak ez direnekin
Joko eramaileak haien leku bat hartu behar du

**Kausitze kriterioak :**
Joko eramailearentzat: leku bat hartzea.
Beste lauentzat lekurik ez galtzea.

**Aldaerak:**
Ezkerreko / Eskuineko auzoa maite duzu?

## ONDOKO EKITALDIAK:

Egilea: Genofa Salle Donibane Lohitzuneko Urdazuri Lehen Mailako Eskola Erakaslea

Orrialde orraztatzailea: Yves Haran, Euskararako Pedagogia Aholkularia